

ESKOLA-BARATZEKO LANTEGIAK



Jarduera baratzean	
Hezkuntza-etapa	Haur Hezkuntzako 2 eta 3. maila
Ikasgelan aurretik egiteko jarduera (hautazkoa)	Musika-instrumentuak egitea haziekin
Gidatutako jarduera baratzean barna	Baratzea, bost zentzumenen bidez
Ikasgelan, ondoren egiteko jarduera (hautazkoa)	Hamaiketakoa, sasoiko ortuariekin

Baratzea, bost zentzumenen bidez

Helburuak

- Harremanetan jartzea kontsumitzen ditugun elikagai batzuk eta horiek ekoizteko tokiak eta erak.
- Baratzeraz zentzumenen bidez hurbiltzea.

Iraupena

- Aldez aurretiko jarduera ikasgelan (hautazkoa) (1 h)

- **Jarduera: 1 h 30'**

Ikasgelan ondoren egiteko jarduera (hautazkoa) (1 h)

Garapena

- ***Aldez aurretiko jarduera ikasgelan (hautazkoa)***

Musika-instrumentuak egitea haziekin

Ontzi garden batzuk zenbait motatako haziekin beteko ditugu, haien bolumenaren $\frac{1}{3}$ raino. Ez ditugu haziak nahasiko, instrumentu bakoitzak hazi mota bakarra eramanen du, nahiz eta horiek errepika daitezkeen.

Ontziak ez badu estalkirik, kartoi-meheen puskak egin ditzakegu, zirkularrak eta ontziaren ahoaren tamainakoak, eta estalki modura jarri zelofanez loturik.

Materialak:

- Tamaina eta forma ezberdinetako ortuarien haziak: babarrunak, artoa, zerba, uraza, dilistak...
 - Ontzi birziklatuak, ahal dela gardenak, haziak ikusi ahal izateko (ikasleei etxetik ekartzeko eskatzen ahal zaie, edo eskola-jantokitik hartu).
- Kartoi mehea.
- Guraizeak.
 - Zelofana.

- **Jarduera baratzean: “Baratzea, bost zentzumenen bidez”**

Bertaratu eta baratzea aurkeztea

Baratzera iritsi eta biribil bat osatuz eseriko gara. Labur azalduko dugu non gauden eta zer egiten den bertan.

Hastapen-ipuina

Ipuin bat irakurriko dugu baratzearen munduan murgiltzen hasteko. Izenburu batzuk proposatu dira **1. eranskinean**.

Paseoa baratzean barna

Ipuinaren pertsonaien arabera itxuraldatuta (intsektua, zizarea...), paseo bat emanen dugu begiak, belarriak eta sudurra prest ditugula topatzen ahal dugun guztiari antzemateko. Ozenki aipatuko dugu antzemandako guztia.

Horrela, bada, mugitu egingen gara baratzearen aurkezpena egin dugun tokitik hurrengo jardueran egin behar eta hara.

Pipitaki-papataki

Jolas bat egingen dugu, ikusmenaz besteko zentzumenez baliatuta asmatzeko zer ortuari landatzen diren baratzean; hortaz, begiak estalita egingen dugu jarduera. Baten bat ez bada seguru sentitzen begiak estalita, ez dugu behartuko jarduera egitera. Begiak itxita edukitzeko, proposatzen ahal zaio.

Biribil batean eseriko gara eta jolaserako jarraibideak azalduko dizkiegu, jarduera egiten hasteko.

Begiak estaltzen lagunduko diegu, zapiekin, musu-mozorroekin...

Esanen diegu esku-ahurra gorantz dutela aurreratzeko esku bat, eta baratzeko elikagai batzuk jarriko dizkiegu bertan.

Haurrak isilik egonen dira gure jarraibideei adi.

Lehen ortuariaren puskatxo bat jarriko dugu.

- 1) Eskuko ortuaria usainduko dute.
- 2) Bi eskuekin ukituko dute.
3. Dastatuko dute (elikagaiak probatzera ematen dizkiegun aldiro, kontuan hartuko ditugu gerta daitezkeen elikadura-alergiak, edo kultura zein erlijioa dela eta horiek jateko izan ditzaketan mugak).

Ez dute esanen zer ortuari den amaiera arte, hau galdetzen diegunean:

Ba al dakigu zer den?, nola asmatu dugu?: usainduz, ukituz, dastatuz?, gustatu zaigu?, etxean jan ohi dugu?

Begietako zapia kenduko dute eta ortuaria osorik erakutsiko diegu, puska egin gabe.

Jarduera bera errepikatuko dugu hiruzpalau ortuari edo fruta ezberdinekin.

Baratzetik bertatik hartzen ahal ditugu. Horrela, harremanetan jarriko ditugu kontsumitzen ditugun elikagaiak eta horiek ekoizteko erak.

Nolako soinua dago baratzean?

Ikasgelan, instrumentuak egiteko aurretiko jarduera egin badugu, jarduera hau eginen dugu entzumena lantzeko.

Biribilean jarrita, haziekin egindako instrumentuak banatuko ditugu.

Instrumentuen hazi motak aipatu eta horietako bakoitza joko dugu, soinuen arteko aldea entzuteko.

Erronda bat eginen dugu, non erritmo ezberdin batzuk proposatuko ditugun. Pertsona bakoitzak erritmo bat proposatuko du, eta gainerakook imitatu eginen dugu.

Bukatzeko, "kontzertu" libre bat eginen dugu, izan ere, bakoitzak nahi duen eran jotzen ahalko du bere instrumentua. Mugimenduaz lagunduta egin daiteke.

Landarea eta haren haziak

Berriz ere ipuinaren pertsonaia batez (zizarea, intsektua...) itxuraldatuta, elkarri eskutik helduta mugituko gara jakiteko zer landareri dagozkion instrumentuak egiteko erabili ditugun haziak.

Baratzean murgilduta:

Gonbit eginen diegu ikasleei zentzumenen bidez iker dezaten eta goza daitezen baratzeaz, banaka, edo nahi izanez gero, binaka edo taldeka. Horretarako, denbora bat emanen zaie ikasleei libreki miatu dezaten baratzean topatzen ahal duten guztia (intsektuak, landareak, fruituak, lurra), usaindu, ukitu dezaten, haiekin harritu daitezen.

Materialak

- 2 ipuin (proposamen batzuk, **1. eranskinean**).
- Ortuariak, osorik eta puskak eginda, ahal dela bisitatzeko ari garen baratzean landatuta egon daitezela. Proposatutako ortuariak: ilarra, azenarioa, tomatea eta marrubia. Zapiak edo musu-mozorroak.
- Ontziak haziekin.

- ***Ikasgelan ondoren egiteko jarduera (hautazkoa)***

Hamaiketakoa, sasoiko ortuari eta frutekin.

Ikasleekin baratzerara egindako bisita aprobetxaturik, zerrenda bat eginen dugu bertan landatzen diren elikagaiekin. Zerrendak barne hartzen ahal ditu ortuariak, frutak eta haziak. Kontuan hartuko ditugu ikasleek eduki ditzaketen elikadura-alergiak edo jateko mugak kultura zein erlijioa dela eta.

Irteera bat egin dezakegu azokara elikagaiak erosteko, edo bestela, irakasleek eraman ditzakete ikasgelara.

Denon artean hamaiketako bat prestatu eta partekatuko dugu.

Jarduera osagarriak

1. jarduera: Baratzean harat-honat

Baratzeko atari zabaleko espazioaz baliatuta, mugitzeko jolasen bat proposatzen ahal dugu. Instrumentu bat erabiliko dugu horretarako: pandereta.

Musikaren doinuak dirauen bitartean, libreki arituko gara dantzan.

Musika eteten denean, jarraibide bat emanen diegu. Adibidez:

- Ukitu kolore honetako lore bat: ...
- Baratzeko landare bilakatuko gara (zerba, uraza, porrua...)

2. jarduera: Landare aromatikoak baratzean

Usaimena eta ukimena lantzeko, ibilbide bat proposatuko dugu landare aromatiko batzuk ukitu ditzaten (izpilikua, ezkaia, erromeroa...).

Ukitu eta gero, eskuak usaindu eta zer landare den asmatzen saiatuko gara.

3. jarduera: Itxiera-ipuina

Lantegiari buru emateko beste modu bat beste ipuin bat irakurtzea izan liteke. Izenburu batzuk proposatu dira **1. eranskinean**.

4. jarduera: Baratzea marrazten

Marrazki bat eginen dute ikasleek, zeinek berea, baratzean "sentitu" dutena –ikus, usaindu, dastatu, entzun eta ukitu dutena– abiapuntua hartuta.

Jarduera hau baratzean egin daiteke, lantegia amaitzeko, edo gero, ikasgelan.

Materialak:

- Folioak.
- Arkatzak, pinturak,...

1. eranskina: Proposatutako zenbait izenburu

- ***El Huerto de Juan***; Joan Salicrú, Marta Such

- ***¡Tenemos un Huerto!***; Joanna Gaines eta seme-alabak, Julianna Swaney

- ***La Huerta de Simón***; Rocío Alejandro
- ***Ximunem baratzea***; Rocío Alejandro.

- ***El Viaje de Od*** (Las Niñas Cambian el Mundo); Susanna Isern

- ***Semillas***; Desiree Acebedo

- ***El Árbol de la Escuela***; Antonio Sandobal eta Emilio Urberuaga
- ***Eskolako arbola***; Antonio Sandobal eta Emilio Urberuaga

- ***Un Árbol***; Rodrigo Mattioli
- ***Zuhaitz bat***; Rodrigo Mattioli